

2020ko maiatza

Familia agurgarriak,

Lehenengo gauza espero dut bai zuek denak eta ondokoak ongi eta osasuntsu egotea.

Bizitzen ari garen egoera guzti hau denontzat berria da, ezjakintasuna, urduritasuna, beldurra... galdera asko eta buruari buelta asko emateko momentuak izaten ari dira.

Egun batetik bestera gure biziak zeharo aldatu dira, gure eguneroko eginbeharrak, gure eguneroko rutina, etxean genuen martxa dena aldatu zaigu, bat batean ikasi behar izan dugu teknologi berriak erabiltzen, dena etxetik egiten, gure seme-alaben irakasle bihurtu behar izan gara, era berrietara moldatzen.

Jakitun gara osasun larrialdi egoera honek etxe askotan sortu dituen arazoak kezagarriak eta kasu batzuetan oso larriak direla. Gure udaletxeetan eta ahal den neurrian era ezberdinetako laguntzak jarri ditugu martxan, esfortzu haundia eginez. Loatzo Musika Eskola ere gure Mankomunitatea da, gure udaletxeek urtean ekarpen handia egiten dute hau mantentzeko, aldi berean uste dugu larrialdi egoera honetan beste esfortzu gehigarri bat egitea tokatzen zaigula, beraz **apirileko eta maiatzeko kuotetan % 50eko murrizketa aplikatzea erabaki dugu**, zuei, familiei lagundu nahian. Ondorioz, maiatzeko kuota ez zaizue kobratuko. Ikasturte osoa ordainduta duzuenoi, dagokizuen zatia itzuliko zaizue maiatzaren bukaeran.

Agerian geratu da, konfinamentuan egon garen denboraldi guztian musikak duen garrantzia, etxeetatik musikaz alaitu ditugu kaleak, hildakoak musikaz eta kantuz agurtu ditugu, musikak alaitasuna sortzen digu gure gorputzean eta bizirik mantentzen gaitu.

Zaindu eta ez ahaztu *"...irrifar txikitxo bat margortu diot neure buruari, eguzki, ilargi, hego-haize, mundu zahar eta euri denak keinuka ari baitira, irri egiten duenari"*.

Irrifar eta besarkada hau zuentzat.

Loatzo Mankomunitateko lehendakaria,

Beatriz Unzue

(Loatzo Musika Eskola mankomunitatea osatzen dugun 8 herrien izenean)